

Gure Planeta Gure Etxea PLANIFIKAZIOA
DBHko 1. mailako Plastika arloa 2025-2026 ikasturtea (urtarrila-ekaina)

URTARRILA 19-23

1. JARDUERA	Ikas-egoeraren, helburuaren, jakintza-gaien, lanerako ikasle-taldeen, ebaluazio-irizpideen, planteamenduaren, baliabideen eta planifikazioaren azalpena egitea. Plastika arloan erabiltzen ditugun plastikagela.com webgunean eta Showbie aplikazioan ikas-egoerari buruzko informazioa erakustea eta azalpenak egitea. Proiektuarekin hasteko, ideien zaparrada egingo dugu, lehenbizi talde txikietan eta gero talde osoko bileran galdera hauei erantzunez: • Nolakoa da Planetaren egoera gaur egun? Nolakoa da ozeanoen, basoen eta hainbat animalia-aren egoera? • Nolakoak dira gizakion arteko harremanak? • Kalterik eragiten diogu gizakiok gure Planetari? Zeintzuk dira kalte hauek? • Zer egin dezakegu guk egoera hobetzeko? Zelakoa izan beharko litzateke gure jarrera? Eta gizartearena? Ondoren, plastikagela.com webguneko Gure Planeta Gure Etxea atalean dugun WWF erakundearen eta Sir David Attenborough zientzialariak aurkeztutako How to Save Our Planet (8.31) bideoa ikusi eta aztertuko dugu.
-------------	---

URTARRILA 26-30

2. JARDUERA	Aurreko jarduerako ideien zaparradan eta How to Save Our Planet bideoan azaldutako ideietan oinarrituta zirriborro txikiak egingo ditugu gaiari buruz gure iritzia adieraziz. Zirriborroetan ANOTAZIOAK, IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu.
-------------	---

OTSAILA 2-6	
3. JARDUERA	plastikagela.com webguneko Gure Planeta Gure Etxea atalean eta SlideShareko PlastikakDBHLauro plataforman dugun Gure Planeta Gure Etxea aurkezpenean irakurri eta aztertuko dugu. Ondoren, ideien zaparrada egingo dugu, lehenbizi talde txikietan eta gero talde osoko bileran galdera hauei erantzunez: • Zer dira arazo ekosozialak? • Zer dira ekodependentzia eta interdependentzia? • Zer dira 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)? Zirriborroetan ideien zaparradako edukiak idatziko ditugu. Aurreko jardueran egindako zirriborroetatik abiatuz, eta Gure Planeta Gure Etxea aurkezpenean azaldutako ideiak gehituz, zirriborroak egiten jarraituko dugu. Zirriborroetan ANOTAZIOAK, IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu.
OTSAILA 9-13	
4. JARDUERA	plastikagela.com webguneko Gure Planeta Gure Etxea atalean dugun Genially-ko Arazo ekosozialak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak ihes-jokoa landuko dugu misioetan agertzen diren arazo ekosozialak identifikatuz eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin harremanduz. plastikagela.com webguneko Gure Planeta Gure Etxea atalean ditugun baliabide desberdinen bitartez, gaiari buruzko oinarritzko edukiak aztertu eta arazo ekosozialekin, ekodependentzia, interdependentzia eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin harremanduko ditugu: • UN Etxearen Garapen Iraunkorrerako Helburuak bideoa. • UN Etxearen Krisialdi klimatikoa eta Giza Eskubideak bideoa. • 2030erako BIODIBERTSITATE ESTRATEGIA bideoa. • 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH). • Lauro Ikastolako 2030 Agenda-plana eta lauro2030agenda.eus webgunea. Zirriborroak egiten jarraituko dugu gaurko jardueran aztertutako edukiak kontuan izanik. Zirriborroetan aztertutako gaiei buruzko ANOTAZIOAK, IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu.

OTSAILA 16-20	
5. JARDUERA	plastikagela.com webguneko Gure Planeta Gure Etxea atalean eta YouTubeko plastikagela kanalean dugun IKASKETA KOOPERATIBOAren ARDURAK eta FUNTZIOAK bideoa ikusi eta aztertuko dugu. Azalpena pdf dokumentuan ere badugu. Ondoren, taldekideen artean IKASKETA KOOPERATIBO Aren ARDURAK adostuko ditugu. Zirriborroak egiten jarraituko dugu. Zirriborroetan ANOTAZIOAK, IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu.
OTSAILA 23-27	
6. JARDUERA	Talde osoko bileran, landuko dugun arazo ekosoziala erabakiko dugu. Ondoren, taldeka, arazo ekosozialari buruzko informazioa bilatu, aztertu, bildu eta aukeratuko dugu. Aukeratutako arazo ekosoziala Lauro 2030 Agenda-planean lantzen dugun edo lan dezakegun aztertu. Taldeka, neurri handiko kartel bat sortuko dugu, aukeratutako arazo ekosozialari buruz informatuz, konzientziatuz eta iritzia emanez. Aukeratutako arazo ekosozialari buruzko hasierako zirriborroak banaka egingo ditugu gai hauek kontuan izanik: • Arazo ekosozialaren deskribapena. • Kokapen geografikoa. • Ekodependentzia eta interdependentziarekiko harremana. • 2030 Agendako GJHekiko harremana. Zirriborroetan aztertutako gaiei buruzko ANOTAZIOAK, IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu.
MARTXOA 2-6	
7. JARDUERA	plastikagela.com webguneko Gure Planeta Gure Etxea atalean eta SlideShareko PlastikadBHLauro plataforman dugun Kartelgintza aurkezpena irakurri eta aztertuko dugu. Ondoren, ideien zaparrada egingo dugu, lehenbizi talde txikietan eta gero talde osoko bileran galdera hauei erantzunez: • Zertarako erabili ohi dira kartelak? • Zeintzuk dira kartelaren ezaugarriak? • Zeintzuk dira kartelgintzan erabiltzen diren ikusizko baliabideak? Zirriborroetan ideien zaparradako edukiak idatziko ditugu.

MARTXOA 9-13	
8. JARDUERA	Ikasle-talde bakoitzak aukeratutako arazo ekosozialari buruzko kartel bat egingo du, kartelgintzaren ezaugarriak eta ikusizko baliabideak era egokian aplikatuz. Hauek izango dira kartelak bete behar dituen baldintzak: 1. Kolore lauak eta uniformeak erabiltzea. 2. 3-5 kolore erabiltzea. 3. Irudiak kartelaren espazioa ondo betetzea eta testuarekin integratuta egotea. 4. Testua laburra, argia eta irudiarekin harremana izatea. Banakako zirriborroak egiten jarraituko dugu SketchBook aplikazioaren bitartez. Zirriborro hauek egiteko, arazo ekosoziala adierazten dituzten argazkietatik abiatuz marrazki digitalak egingo ditugu koloreak frogatuz. Irudi hauek Showbieren bitartez aurkeztuko ditugu.
MARTXOA 16-20	
9. JARDUERA	Kartelean landuko dugun arazo ekosozialaren atalak adierazteko, ideia gehiago eta berriak lortzeko eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin harremantzeko, ideia sortzaileak trebetasunez asmatzen pentsatzeko trebetasuna landuko dugu.
MARTXOA 23-27	
10. JARDUERA	Taldeko kartela irudikatzearen hastapenak landuko ditugu, hasierako ideiak (aurretik idatzi ditugun ANOTAZIOAK) zirriborroetan frogatuz eta aplikatuz. Zirriborro hauetan IZEN-ABIZENA, DATA eta ondorengo galderei buruzko ANOTAZIOAK idatziko ditugu: 1. Landutako arazo ekosozialaren azalpena. 2. Ekodependentzia edo/eta interdependentziarekiko harremanaren azalpena. 3. Kartelean lantzen diren GJHa(k) zerrenda. 4. Kartelaren (irudiaren) mezuaren azalpena. Zer adierazten du kartelak? 5. Koloreak: kopurua eta motaren azalpena. Zergatik erabiliko ditugu kolore horiek? 6. Testua zein izango den eta irudiarekin duen harremanaren azalpena.

APIRILA 13-17	
11. JARDUERA	Taldeko kartela irudikatzearen hastapenak lantzen jarraituko dugu, gure ideiak zirriborroetan frogatuz eta aplikatuz. Zirriborro ugari egingo dugu, DIN A3 neurrian. taldekideen zirriborroen artean 6 atalak azaldu direla ziurtatuz. Zirriborroetan ANOTAZIOAK, IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu. Taldekide guztiak anotazioak azaltzeko gai izan behar dira.
APIRILA 20-24	
12. JARDUERA	Taldeko kartela irudikatzearen hastapenak lantzen jarraituko dugu, gure ideiak zirriborroetan frogatuz eta aplikatuz. Zirriborro ugari egingo dugu, DIN A3 neurrian. taldekideen zirriborroen artean 6 atalak azaldu direla ziurtatuz. Zirriborroetan ANOTAZIOAK, IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu. Taldekide guztiak anotazioak azaltzeko gai izan behar dira.
APIRILA 27-30	
13. JARDUERA	Prozesuan zehar egindako lanaren ebaluazioa eta autoebaluazioa egingo dugu: talde osoko bileran, ikasle talde baten proposamenak, zirriborroak eta anotazioak ikusi eta aztertuko ditugu, irudiotan ikusizko baliabideen identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez eta kideen lanekiko errespetua erakutsiz. Zirriborroetan, ikasleek planteatutako hasierako ideiak lortzeko, ikusizko baliabideak era egokian erabili diren aztertuko dugu. Ondoren, ikasle-talde bakoitzak bere lanaren autoebaluazioa egingo du, planteatutako hasierako ideiak lortzeko ikusizko baliabideak era egokian erabili dituzten aztertuz lanaren garapena ebaluatzeko.
MAIATZA 4-8	
14. JARDUERA	Sormen prozesuaren autoebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuko ditugu eta beharrezkoak diren egokitzapenak egingo ditugu, planteatutako hasierako ideiak era egokian lortzeko ikusizko baliabideak era egokian erabiliz. Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza kartoi-mehe handi batean egingo dugu.

MAIATZA 11-15	
15. JARDUERA	Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza kartoi-mehe handi batean egingo dugu.

MAIATZA 18-22	
16. JARDUERA	Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza kartoi-mehe handi batean egingo dugu.

MAIATZA 25-29	
17. JARDUERA	Portafolioa egitea: hasierako planteamendua eta ideiatik hasita azken emaitzaraino egindako lanaren bilduma osatuz. Egindako lanaren argazkiak eginez, portafolio digitala nola egin azaltzea, ereduak ikusiz eta aztertuz. Egindako lanaren argazkiak egin ondoren, portafolio digitala Keynote aplikazioan sortuko dugu. Portafolio digitalaren aurkezpenaren eredu Showbien izango dugu, bertatik Keynote aplikazioan deskargatu eta kideen artean partekatu ondoren, denon artean osatuko dugu. Portafolioa proiektuaren aurkezpena egiteko erabiliko dugun tresna izango da. Portafolio digitalak-aurkezpenak, baldintza hauek beteko ditu: • Proiektuaren garapena erakustea hasierako ideiatik hasita azken emaitzaraino. • Proiektuan landutako 6 atalak azaltzea. Portafolioa-aurkezpena bukatu ondoren, Showbiera pdf formatuan bidaliko dugu era egokian izendatuta.

EKAINA 1-5	
18. JARDUERA	Portafolioa-aurkezpena sortzen jarraituko dugu. Portafolioa Showbiera bidali ondoren, SketchBook aplikazioaren bitartez, azken emaitzaren argazkian oinarrituta irudia digitalizatuko dugu. Taldekide desberdinen irudi digital hauek portafolioan txertatuko ditugu.